

Leioako azentuaz

IÑAKI GAMINDE*

0. SARRERA

Behar honetan Leioako euskararen azentueraren ezaugarriarik nabarmenena aztertzen dira. Leioako sistema, Txorierriko gainerako herrietakoen moduan, oso interesgarria da iparraldeko doinu-azentudun sistemen eta hegoaldeko indar azentudun sistemen artean kokatuta dagoelako eta ezaugarri komunak dauzkalako batzuekin zein bestekin.

Leioako euskararen egoera ez da oso ona, hiztunik onenak edade handikoak izaten dira eta ezin eurokin erabil daitezke laborategiko teknikak azterketak burutu ahal izateko; hori dela eta, testu askeetan oinarritu gara. Azterketa era honen akatsa sarritan sistematizazio eza eta datuak ezin osatzea izaten da; abantailetan, bestalde, naturaltasuna eta fidagarritasuna aipa daitezke. Gure Leioa Berbarik Berba (Gaminde 2001) eta Leioako Euskararen Gramatikaz (Gaminde 1989) beharrak osatzeko jasotako corpusetan oinarritu gara azterketa burutu ahal izateko, korpus horretan 30 bat ordu bildu dira.

Beharraren lehen atalean azentueraren ezaugarri orokorrak aztertuko ditugu; Bigarren atalean izen eta adjektiboen azentueraren ereduak aztertuko ditugu eta hirugarrenean, berriz, aditz partizipioena. Hurrengo hiru ataletan eratorpen atzizkiak, berba konposatuak eta flexio atzizkiak arakatuko dira. Azkenik, zazpigarren atalean, Leioako eredu honen ezaugarriak inguruko beste eredu bien ezaugarriekin erkatuko dira.

1. AZENTUERAREN EZAUGARRIAK

Leioako azentuera Txorierriko bariatatearen barnean sailka dezakegu (Gaminde, 1998), hau da, iparraldeko bizkaieraren azentu-tonudun bariatateen mugan egonda, sistema horien ezaugarri batzuk dauzkan arren beste batzuk desberdinak dira. Getxo-Gernika bariataterako Hualdek (1997) emandako ezaugarriak honela laburtzen dira:

* EHU-ko irakaslea.

- a. Bereizketa lexikoa: Morfemak (erroak eta atzizkiak) [+am] edo [-am] izan daitezke, [+am] atzizkiek azentua aurreko silaban ezartzen dutelarik.
- b. Hitzak [+am] morfema bat baino gehiago badauzka, lehendabizikoak erabakitzen du azaleko azentuaren kokagunea. Hitzean eratorpen atzizki bortitz bat badago, atzizki onek oinarri osoaren azentuera erabakitzen du.
- c. [+am] morfemarik ez badago, talde prosodikoaren azken silabak jasotzen du azentua

(a) ezaugarriari dagokionez, Leioan bereizketa lexikoa dugu: erroak eta atzizkiak azentudunak eta azentubakoak izan daitezke. (b) ezaugarriari dagokionez, ondoko adibidearen bidez adierazten den moduan, hitzak [+am] morfema bat baino gehiago badauzka, lehenak erabakitzen du azaleko azentuaren kokagunea:

léngusu + 'ri léngusuri

Ez dugu hemen beren-beregi ikertu atzizki bortitzen arazoa, halandaze hau hurrengo baterako utzi beharko litzateke. (c) ezaugarriari dagokionez, Getxo-Gernikan ez bezala, Leioan azentua txertatzeko arau orokorra erabakitzeke, kontutan hartu behar da erroaren silaba kopurua; horrela, erroak silaba bat edo bi dauzkanean mugatzailea ere azentueraren eremuan sartzen da eta 1] (c1) arauaren arabera azentuatzen da; hiru silaba daudenean, ostera, erroaren azken silaban txertatzen da azentua (c2). Gogotan eduki behar da, bestalde, Getxo, Gatika, Jatabe eta Getxo-Gernikako barietateko beste herri batzuetan gertatzen den moduan mugatzailea asimilatu egiten dela bokalez amaituko erroekin; hots:

Mugagabea	Singularra
neska, alaba	neske, alabe
seme, abade	seme, abade
idi, erri	idi, erri
asto, baso	asto, baso
esku, katu	esku, katu
alargun, adar	alargune, adarra

2. IZEN ETA ADJEKTIBOEN AZENTUERA

Gorago eman ditugun azentueraren arauak kontutan hartuta, izen eta adjektiboen azentueraren adibideak emakeran, ohikoa den azentubakoa eta azentuduna ez eze, erroaren silaba kopuruaren arabera aurkeztuko ditugu

Silaba bakarreko erroak:

Silaba bakarreko izen eta adjektibo guztiak azentubakoak dira, mugatzailea gehituta azentuatzen dira 1] arauaren arabera:

o-ó: arrá, auntzé, autzé, baltzá, beyé, gatxá, gatzá, lurré, meá, miné, oná, otzá, sarrá, satzá, sayé, sitzé, soyé, sué, txarrá, uré,

Silaba biko erroak:

Bokalez amaituko silaba biko erroak, mugatzailea gehituta silaba biko gertatzen dira; euron artean azentubakoak eta azentudunak aurki ditzakegu:

o-ó: aité, amá, andí, andré, ardáu, ardí, argí, arrí, artó, asté, até, aurí, barrí, basé, beró, besó, bidé, burú, dirú, errí, errú, fruté, garbí, garí, gasí, gasté, gausé, gosó, kalé, karé, katú, lodí, loré, mendí, nebé, negú, neské, ogí, orrí, ortú, plasé, porrú, samé, santzó, soló, trapú, txorí, udé, umé, urté

ó-o: ábi, áltu, átze, bárre, básu, bérso, béste, bítxo, bróte, bwélte, dénde, égi, góрте, jénte, káfe, kánpo, láye, léku, líbru, máye, páspi, sésto, sílle

Kontsonantez amaituko silaba biko erroak hiru silabako geratzen dira mugatzailea gehitu ondoren; euron artean azentubakoak eta azentudunak aurki ditzakegu:

o-o-ó: alperrá, argalá, astuné, asulé, asurré, bearrá, bedarrá, bildurré, ederrá, edurré, eguné, gorputzé, iduné, iluné, ixerrá, laguné, mingotzá, mutilé, políté, txakurré, txikerrá, ugerrá, usená

o-ó-o: edóya, gastáya, limóya, marróya, trugóya

ó-o-o: músberra

Bokalez amaituko hiru silabako erroak:

o-o-ó: abadé, afarí, alkaté, anajé, bellegí, erroté, ganadú, iturrí, konorté, kriedú, madarí, okelé, taberné

o-ó-o: angéru, arrásti, belárri, bentáne, binégre, bufánde, egúski, erréke, frontóya, galdáre, kabállo, katxábe, kenpúlle, kodáñe, kotxórro, lapíko, makállo, neskáto, peséte, sidíri, suéte, tellátu, tomáte, ukóndo

ó-o-o: áitite, ámoma, árrutze, bésbári, dénpore, drúngulu, érdere, éuskere, índabe, íñurri, jénero, lándare, léngusu, líburu, número, óllasko, yústuri

Kontsonantez eta diptongoz amaituko hiru silabako erroak:

o-o-ó-o (azentubakoak): aberátza, alargúne, atzamárta, kuntzurruéne, askordíne, errotóya

o-ó-o-o (azentudunak): astélena, barákatza, okérana

Hiru silabatik gorako erro bakunak ez dira oso ugariak; hala ere hona hemen adibide batzuk:

o-o-ó-o: inusénte, abasúse

o-ó-o-o: orkátile, ugélarío, alkóndare, kakárraldo, urúbio, asúkere

ó-o-o-o-o: káskaragarra

3. ADITZ PARTIZIPIOEN AZENTUERA

Izen eta adjektiboen azentuera aurkezteko egin dugun modu berean, aditz partizipioak aurkeztuko ditugu jarraian, hots, partizipioen silaba kopuruak eta azentubakoa edo azentuduna izatea bereiziko dugu.

Silaba biko aditz partizipio azentubakoak:

o-ó: aítú, altzá, artú, así, aukí, batú, doblá, ebái, edán, egón, eldú, emón, entzún, erré, esán, geitú, itó, ixí, kantzá, kargá, kendú, koyú, labrá, lotú, pasá, pentzá, saldú, sartú, tardá, tragá, yarrí

Silaba biko aditz partizipio azentudunak:

ó-o: bóta, érain, éron, násta, yáusi, yáyo

Hiru silabako aditz partizipio azentubakoak:

o-o-ó: afaldú, agertú, argaldú, berotú, bigundú, ekarrí, esetú, eskatú, eskondú, etorrí, gorritú, igerrí, ikusí, iminí, karetú, loditú, mamurtú, megidú, otzitú, parkatú, sabaldú, segidú, ukutú

Hiru silabako aditz partizipio azentudunak:

o-o-ó: agárra, akába, alléga, amárra, amáta, arráska, arríma, desárma, entéra, eskápa, gobérna, itxéron, pregúnta

o-o-ó: béskaldu

Lau silabako aditz partizipio azentubakoak:

o-o-o-ó: bereinketú, elejidú, eskribidú

Lau silabako aditz partizipio azentubakoak:

o-ó-o-o: amúrrutu, batéatu, altzíkitu

ó-o-o-o: átzeratu, kónturetu/kónturotu

4. ERATORPEN ATZIZKIAK

Eratorpen atzizkiak multzo nagusi bitan sailka ditzakegu; atzizki batzuk azentubakoak dira eta beste batzuk azentudunak.

Atzizki azentubakoak:

Atzizki azentubakoak erroari eransten zaizkio eta, erroa azentubakoa bada, azentua azalean hartzen dute azken silaban. Erroa azentuduna denean, erroaren azentua gailentzen da:

ARI/LARI: errementarí, errotarí, fumalarí, santzolarí

DADE: umedadé, edadé

ERI: barberí, librerí, panaderí, saskelerí

ERU (agentea adierazteko denean): barberú, boterú, txorixerú, enfermerú, kaserú, letxerú, panaderú, tabernerú

ORE: tasadoré, doloré, koloré

OSO: ganosó, kostosó, mañosó, penosó

SINO/SIÑO: afesiñó, atentziñó, bariasiñó, dijestiñó, diputasiñó, indesiñó, infesinó, konbersasinó

TO/DO: edertó, obetó, ondó, txartó

TZU: arritzú, indertzú, mamitzú, okelatzú, orritzú, urtzú

Atzizki azentudunak:

Atzizki azentudunetan mota nagusi bi topa ditzakegu; aurreazentuatzaileak eta azentua biltzen dutenak.

Aurreazentuatzaileak:

DI/TI: arésti, másti, piñúdi, yúnkudi

ERA: lodíere, lusére, sabálere, sakónere

GARREN: irúgarrena, láugarrena, sortzígarrren, bígarrena, bósgarrena, séígarrena

KERA: asíkere, esákere, ixékere
KA: adárka, apúrke, arríke, mustúrke, sáltuke, santzóka, saratáka, txerpáka
KI: andíki, saspíki, txarríki
NGO: bardíngo, gorríngo, potxíngo, suríngo
NTZA: labrántze, yántze
NTZI: diferéntzi, distántzi, paséntzi, susténtzi
PE: besápe, geríspe, okóspe, parrápe, errápe, ikópe, íntxurpe
RENGO: akabúrengo, góirengo, kánporengo
RO: astíro, geldíro, luséro
SKE: gorríske, suríske
SKO: egurréske, kartóisko, kristeléske, kobréske, kortxóske
STO/DO: alpérdo, bixárdo, sapásto, sorrísto, ugérdo
TAR/STAR: berangóstarra, biskáitarra, leyótarra
TI: eskérti, gusúrti, moskórti, negárti
TOKI: ollótoki, orróstoki, txarrítoki, umétoki
TXU: asáltxu, bellegítxu, gogórtxu, lusétxu, sorrótxu, txikítxu, umétxu

Azentua biltzen dutenak:

KERI: arrokéri, inusentekéri, sorginkéri, txarrikéri
MENTU/MINTU: konosimíntu, mandaméntu, medikaméntu
TASUN: astuntásune, berotásune, nobletásune

ADA/KADA atzizkiaren erabilera ez dator bat informatzaile guztien artean; batzuek azentubakotzat darabilte eta beste batzuek, ostera, azentu biltzailetzat:

Azentubakoa: atxurkadé, botakadé, borbolladé, bultzikadé, garrotadé, kamioikadé, palakadé, sestakadé, sestakadé, txangotadé, txorrotadé, urrumedé
 Azentu biltzailea: dardakáde, platerkáde, txerpakáde

5. BERBA KONPOSATUAK

Berba elkartu gehienak azentudunak dira; azentueraren arau nagusia lehen konposagaiaren azken silaban azentua txertatzen duena da. Lehen konposagaia azentuduna denean, berba elkartu osoaren azentua lehen konposagaiaren silaba berean ager daiteke; adibidez:

aldásbera	aldásgora	anéga erdi	aníta madari
artó bixerra	artó kapatxa	askí bedarra	asúnberdi
asúr imitzalle	axé epela	axé ierra	basa bústine
begí epela	begí nabarra	beró larri	bidé siorra
biótzerre	burúkortza	dómusantu	edói montorra
énbraxe	erréka basterra	erríbide	errosário bedarra
etzéalde	eulí mando	eurí edurre	eurí lanbrixte
eyén bedarra	frantzesá bedarra	gastelá soso	gátzure
idér baltza	idí bayeste	itxosóko axe	kabrá bedarra
kanpátorre	kayuéla lurre	kutxílló madari	labágane
makálló asurre	maríero	mesá kanpe	mutíl sarra
negár anpullu	neská sarra	nórteko axe	ollósatza
posó bedarra	sanpédro sagarra	sekulé bedarra	sorrótzarri
tabáko bedarra	tellerúne sagarra	tolérikó	txakúr ase
txarrísatza	txomín bedarra	ullé girne	ullégorri

Kasu batzuetan azentua berba elkartuaren bigarren konposagaiaren lehen silaban kokatuta agertzen da:

alboáGINE	andabÍDE	ardinÁRRU	arrÁTE
artatxÓRI	artelúrRE	astesántU	begitxíNDORRA
betáGINE	betérRE	bioskóLLARE	burtáKARRA
erréKARRI	gabon máDARI	gabon máDARI	gurpÍDE
larrátXURRE	libérDI	liberláUREN	miásPÍKO
munÁRRI	saltza bérDE	sanbédARRA	sanjuan máDARI
sapabÚRU	talobúrNEI	trenbÍDE	txakur txÍKERRA
txakurrÁNDI	udebÁRRI	urtebÉTE	

6. FLEXIO ATZIZKIAK

Flexio atzizkien azentuerak aztertzeko aukeratu ditugunak pluralaren morfemak, deklinabidearen morfemak, graduatzaileak, aspektuak eta gaine-rako batzuk izan dira.

Pluralaren morfemak

Ondoko adibideetan ikusten den legez, pluralaren morfema aurreazentuatzailea da:

ó-o: árdik, ástok, bégik, gíltzek, ídik, kátuk, óllok, sémek, txárrik, úmek

o-ó-o: alábak, ganáduk, gixónak, madárik, mallúkik, pipérrak, sagárrak

o-o-ó-o: alargúnek, atzamárrak

ó-o-o: árrutzek, léngusuk

Deklinabidearen morfemak:

Bizidunen deklinabidearen morfemen jokabidea ikusi ahal izateko bokal guztien eta kontsonantez amaituko ondoko adibideak erabili ditugu (alaba, seme, idi, asto, katu eta gixon):

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
nor	alabé	alábak	semé	sémek
nork	alabék	alábak	semék	sémek
nori	alabéri	alábari	seméri	sémeri
norena	alabéna	alábana	seména	sémena
nogaz	alabéas	alábakas	seméas	sémekas
norentzat	alabéntzako	alábantzako	seméntzako	sémentzako
nagatik	alabéaitik	alábakaitik	seméaitik	sémekaitik
nogana	alabéana	alábakana	seméana	sémekana
noganik	alabéanik	alábakanik	seméanik	sémekanik

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
nor	ídí	ídik	astó	ástok
nork	ídík	ídik	astók	ástok
nori	ídíri	ídiri	astóri	ástori
norena	ídíne	ídine	astóna	ástona
nogaz	ídíes/ídíges	ídikes	astóas	ástokas
norentzat	ídíntzako	ídintzako	astóntzako	ástontzako
nagatik	ídíaitik	ídikaitik	astóaitik	ástokaitik
nogana	ídíana	ídikana	astóana	ástokana
noganik	ídíanik	ídikanik	astóanik	ástokanik

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
nor	katú	kátuk	gixoná	gixónak
nork	katúk	kátuk	gixonák	gixónak
nori	katúri	káturi	gixonári	gixónari
norena	katúne	kátune	gixonána	gixónana
nogaz	katúes	kátukes	gixonáas	gixónakas
norentzat	katúntzet	kátuntzet	gixonántzat	gixónantzat
nogatik	katúaitik	kátukaitik	gixonáaitik	gixónakaitik
nogana	katúana	kátukana	gixonána	gixónakana
noganik	katúanik	kátukanik	gixonáanik	gixónakanik

Bizigabeen deklinabiderako ostera “etze” eta “baso” berben paradigmak erabili ditugu:

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
non	etzén	étzetan	basón	básotan
nora	etzéra	étzetara	basóra	básotara
nondik	etzéti	étzetati	basóti	básotati
nongoa	etzéko	étzetako	basóko	básotako
norantza	etzérantza	étzetarantza	basórantza	básotarantza
noraino	etzéraño	étzetaraño	basóraño	básotaraño

Izen eta adjektiboen deklinabide tauletan ikusten den moduan, absoluti-bo kasuan lortzen den azentuerari eusten zaio paradigma osoan; horrek esan gura du atzizkiak azentueraren eremutik kanpo geratzen direla. Alabaina, beste kategoria gramatikal batzuen deklinabidean ikusten den moduan, atzizki batzuk aurreazentuatzaileak dira; esate baterako GAZ nés, súes, gúes, e.a., eta TI órti, ándi. Erakusleak izenen moduan erabiltzen dira; jarraian erakusleen eta leku aditzondozen taulak ematen dira:

	HAU	HORI	HA
nor	au	orí	a
nork	onék	orrék	ak/arék
nori	onéri	orréri	arí/aréri
norena	onéna	orréna	áine/aréna
nogaz	onégas/onéas	orrégas/orréas	ágas/arégas
norentzat	onéntzat/onéntzako	orréntzat/orréntzako	aréntzat/aréntzako
nogatik	oné(g)aitik	orré(g)aitik	aré(g)aitik
nogana	onégana/onéana	orrégana/orréana	arégana/aréana

	HAU	HORI	HA
nor	ónék	órrek	aik
nork	ónék	órrek	aik
nori	óneri	órleri	áiri
norena	ónena	órrena	áine
nogaz	ónekas	órrekas	áikas
norentzat	ónentzat/ónentzako	órrentzat/órrentzako	áintzat/áintzako
nogatik	ónekaitik	órrekaitik	árekaitik
nogana	ónekana	órrekana	áikana

	HEMEN	HOR	HAN
non	emén	or	an
nora	oná	orrá	ará
nondik	eméti	órti	ándi
nongoa	emekó	orkó	angó
norantza	onántza	orrántza	arántza
noraino	onáño/onárte	orráño/orrárte	aráño/arárte

Erroa azentuduna denean, esate baterako “léngusu”, erroaren azentua gailentzen da paradigma osoan; adibidez:

	Singularra	Plurala
nor	léngusu	léngusuk
nork	léngusuk	léngusuk
nori	léngusuri	léngusuri
norena	léngusune	léngusune
nogaz	léngusues	léngusukes
norentzat	léngusuntzet	léngusuntzet
nogana	léngusuana	léngusukana

Graduatzaileak:

Ondoko taulako adibideetan ikusten den moduan, -AGO (AU) eta -EN graduatzaileak aurreazentuatzaileak dira:

	-AGO	-EN
sarrá	sárrau	sárrena
txarrá	txárrau	txárrena
gatxá	gátxau	gátxena
andí	andíau	andíena
lodí	lodíau	lodíena
gasté	gastéau	gastéena
txikerrá	txikérrau	txikérrena

EGIren ordez gehienetan LAR erabiltzen da; edozelan ere, batu ditugun adibideetan berau ere aurreazentuatzailea da: txikérregi, gosóegi

Aspektoak:

Aspektu ez perfektua eta geroaldia egiteko erabiltzen diren TEN eta KO morfemak aurreazentuatzaileak dira; ondoko adibideak partizipioaren silaba kopuruaren arabera emango ditugu:

Silaba bakarrekoak

yo	yóiten	yóko
in	íten	íngo
yan	yáten	yángo
yon	yóten	yóngo

Silaba bikoak azentubakoak

gustá	gustáten	gustáko
lotú	lótzen	lotúko
kendú	kéntzen	kendúko
pentzá	pentzáten	pentzáko
esán	esáten	esángo
emón	emóten	emóngo
egón	egóten	egóngo
así	ástén	asíko
yarrí	yarríten	yarríko

Silaba biko azentudunak

bóta	bótaten	bótako
éron	érotén	érongo
násta	nástaten	nástako

Hiru silabako azentubakoak

ekarrí	ekárten	ekárko
ikusí	ikústén	ikusíko
segidú	segítan	segidúko
etorrí	etórtén	etórko
agertú	agertúten	agertúko
erosí	eróstén	erósíko
sabaldú	sabaldúten	sabaldúko

Hiru silabako azentudunak

alléga	allégaten	allégako
akába	akábatan	akábako
amáta	amátaten	amátako

Gainerako atzizkiak:

Nominalizazioak egiteko erabiltzen diren TE eta KERAN atzizkiak zein gerundialak egiteko erabiltzen den TA aurreazentuatzaileak dira:

	TEA	TA	KERAN
entzún	entzúte	entzúnte	entzúkeran
emón	emóte	emónta	emókeran
in	íte	ínte	íkeran
esán	esáte	esánta	esákeran
así	áste	asíte	asíkeran
urtén	urtéte	urténta	urtékeran
ixí	ixíte	ixíte	ixíkeran
ikusí	ikúste	ikusíte	ikusíkeran

7. LEIOAKO EREDUA ETA INGURUKO EREDU BATZUK

Sarreran eman ditugun ezaugarrien arabera, Leioako eta inguruko sistemen artean badaude desberdintasun batzuk; hala ere, euren arteko lotura ar-

gia ikus daiteke. Berba azentubakoak azalean azentuatzeko arau orokorren ondorioz hauen moduko desberdintasunak agertzen zaizkigu:

Gatika		Leioa		Zeanuri	
Bakartuta	Galdegaia	Bakartuta	Galdegaia	Bakartuta	Galdegaia
txarrá	txarrá	txarrá	txarrá	txarra	txarrá
adarrá	adarrá	adarrá	adarrá	adarra	adarrá
alarguné	alarguné	alargúne	alargúne	alargúne	alargúne

Leioa da barietate bien artean kokatzen den giltzarria; Gatika eta Zeanuri alderatuta %33a baino ez daukate komun; alabaina, Leioak bai Gatikarekin, batetik, bai Zeanurekin, bestetik, %66a dauka.


Deklinabidearen atzizkiak gehituta, pluralean ez dugu desberdintasun nabarmenik (Zeanurin “a” amaituko berbekin gertatzen dena bazter utzita honako) hiru barietateen artean; singularrean, ostera, Leioan eta Zeanurin absolutuaren azentuenerari eusten zaio padarigma osoan. Jarraian silaba biko eta hirukoen jokabidea ikus daiteke

	Gatika	Leioa	Zeanuri
nor	laguné	gixoná	laguné
nork	lagunék	gixonák	lagunék
nori	lagunerí	gixonári	lagunéri
norena	lagunená	gixonána	lagunéna
nogaz	lagunéas	gixonáas	lagunégas
norentzat	lagunéntzako	gixonántzat	lagunéntzat
nogana	laguneaná	gixonána	lagunégana

	Gatika	Leioa	Zeanuri
nor	alabé	alabé	alabéa
nork	alabék	alabék	alabéak
nori	alaberí	alabéri	alabéari
norena	alabená	alabéna	alabéana
nogaz	alabéas	alabéas	alabéagas
norentzat	alabéntzako	alabéntzako	alabéantzat
nogana	alabeaná	alabéana	alabéagana


Bada, batez ere intonazio alorrean daukan eraginagatik, Getxo-Gernika eta Arratiako sistemen aldean, beste desberdintasun bat. Gaminderi (2000) jarraikirik Gatikan, eta Getxo-Gernikan gehienetan, berba azentubakoak galdegaigunean edo bakarturik ondoko arauaren arabera gauzatzen dira:

%L (H-) H*L L%




Bakio: /an be beko etzie da/

Leioan, kasu gehienetan H- tonua ez da erabiltzen, berorren ordean interpolazioa egiten da lehen %L tonutik harik eta H*L jo arte; adibidez (Gatikan badirudi hau ere aldatzen hasita dagoela, Hualde, Elordieta, Gaminde eta Smiljanic 2000; era berean Leioan guztiz ez dela burutu esan dezakegu):




/txorrotada on bát eta/




/ba atzamárta lasekó/

Ondoko adibidean %Ltik bigarren silabarako igoera gertatzen da, gero bertatik hedatzeko; kasu honetan H- tonua edukiko genuke:





/dijestiño txar bat/

Getxo-Gernikako sisteman legez, aditzen osteko berba azentubakoek ez daukate gailurrik eta sintagma baten barruan azentudun bi egonda, H*L bakoitzak osagai bat egiten du tonua mailakatzeko; hona hemen adibide batzuk. Lehen adibidean “urun berde” sintagman azentu bat baino ez dago eta bakturik jaso da; bigarren adibidean “ona” aditzaren ostean agertzen da gailur barik; hirugarrenean sintagmaren barruan azentu bi agertzen zaizkigu:




/urun berdé/



/lándaran aspín ori/

Zeanurin gailur bakarrak silaba azentudunarekin bat egiten du eta ez da go interpolaziorik ondoko adibidean ikusten den legez:



Zeanuri: /gixonak sagar gogorrá saldu dau/

AIPAMENAK

- GAMINDE, Iñaki (1989): Leioako Euskararen Gramatikaz, Leioako Udala, Bilbo.
- GAMINDE, Iñaki (1998): Euskaldunen Azentuak, Labayru, Bilbo.
- GAMINDE, Iñaki (2000): "Azentua eta Intonazioa: Egoera eta ikerketa baliabideak" in Zuazo, Koldo (arg.) *Dialektologia Gaiak*, EHU eta Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- GAMINDE, Iñaki (2001): Leioa Berbarik Berba (agertzeko).
- HUALDE, J. I. (1997): Euskararen azentuerak. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", Gehigarriak XLII. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo eta Donostia.
- HUALDE, J. I.; Elordieta, G.; Gaminde, I. eta Smiljanic, R. (2000): "From Pitch-accent to stress-accent in Basque and the typology of accentual systems" (Agertzeko).

LABURPENA

Behar honetan Leioako euskararen azentueraren ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Leioako azentuera Bizkaiko iparraldeko doinu-azentudunen barietateen lurraldearen mugan kokatzen da. Lan honetan izen, adjektibo eta aditz partizipioen azentueretan oinarritu gara arau orokorrak lortzeko. Morfema azentudun eta azentubakoen arteko desberdintasun nagusiak aurkezten dira. Irizpide bi hauen arabera sailkatu dira erakarpen atzizkiak eta flexio atzizkiak. Sekzioetarik baten berba elkartuen azentuera aztertzen da. Elkartu hauek guztiak beti azentudunak dira eta kasurik gehienetan azentua arau finko baten arabera txertatzen da. Azkenik, Leioako eredia Getxo-Gernika eta Arratia ereduekin erkatu da.

RESUMEN

En este trabajo se analizan las principales características del sistema acentual del euskara de Lejona. El sistema acentual de Lejona se encuadra en la frontera de la zona de las variedades de acento de pitch del norte de Bizkaia. En este trabajo se presentan las reglas generales de acentuación utilizando las características de los nombres, adjetivos y participios verbales. También se analizan las principales diferencias entre morfemas acentuados y no acentuados. De acuerdo con estos dos criterios se han dividido los sufijos de la derivación y de la flexión. En uno de los apartados se analiza la acentuación de los compuestos. Estos compuestos son siempre acentuados y en la mayoría de los casos el acento se asigna por medio de una regla fija. Por último, se ha comparado el sistema de Lejona con los de Getxo-Gernika y Arratia.

RÉSUMÉ

On analyse dans ce travail, les principales caractéristiques du système d'accentuation de l'euskara de Lejona. Le système d'accentuation de Lejona est délimité par la frontière de la zone des variétés d'accent du pitch du nord de la Biscaye. On présente dans ce travail les règles générales d'accentuation en utilisant les caractéristiques des noms, adjectifs et participes verbaux. On y analyse également les principales différences entre morphèmes accentués et non accentués. En accord avec ces deux critères, on a distingué les suffixes de la dérivation et ceux de la flexion. Dans un des paragraphes, on analyse l'accentuation des mots composés. Ces mots composés sont toujours accentués et dans la plupart des cas, l'accent est assigné par le biais d'une règle fixe. Enfin, on a comparé le système de Lejona avec ceux de Getxo-Gernika et d'Arratia.

ABSTRACT

This study analyses the main characteristics of the stress system used in the Basque spoken in Lejona. The Lejona stress system lies on the border of the

area of north Biscayan pitch stress varieties. The general rules of stress are set out using the characteristics of nouns, adjectives and verb participles as a basis. The main differences between stressed and unstressed morphemes are analysed and derivation and inflection suffixes have been divided up in line with these two criteria. One of the sections also looks into stress in compounds. These compounds are always stressed and, in most cases, the stress is assigned via a set rule. Finally, the Lejona system is compared with those from Getxo-Gernika and Arratia.